

#### **4.- ENRIQUE AIZPIOLEA IGIÑIZ (independentea)**

Irungo Meaka auzoan jaio zen duela 47 urte eta gaur egun han bizi da.

Ezkondua dago eta bi seme ditu.

Elektrizista da eta 21 urte zituenetik Recondo fabrikan dabil lanean, gaur egun, Brioche Pasquier Recondon.

20 urte baina gehiago daramatza Meakako Auzo Elkartean lanean eta duela 10 urtetik bertako lehendakaria da. Egun, Oiasso 2000 Auzo Elkarteen Federazioko lehendakari ordea da.

Geratzen zaion denbora librea elkarteari eskaintzen dio, eta bere bi zaletasunei, automobilismoari eta mendiari, denbora gehiago eskaintzea gustatuko litzaioke.